

Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programa.

VII.ERANSKINA: GARAPEN JASANGARRIA

Urtea :2021 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Balio sozial partekatuen sorrera sustatzea, Gipuzkoako enpresa jardueraren eraldaketan dimentsio ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa integratuz, GJHein lerrokatuta.

ENTITATE ONURADUNAK

- Gipuzkoan kokatutako enpresak.
- Gipuzkoan kokatutako enpresen elkarteak eta klusterrak.
- EAEn kokatutako enpresa elkarteak eta klusterrak, Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzeko dituztenak.

DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN JARDUERAK

Diruz laguntzekoak izango dira gizarte balio partekatua sortzearen eremuan eta/edo garapen jasangarriko helburuen eremuan gauzatzen diren eraldaketa proiektuak, honako kasu hauetan bildutakoak:

- Arlo sozialeko, inguruneke eta lurraldeetako behar, erronka eta aukerak asetzeko modu berriak bideragarriak egitea, ekonomiaren abantaila erlazionalak eta pertsonen, enpresen eta lurraldearen ahalduztzearen potentzialitateak optimizatuz.
- Enpresen estrategia eta balio-katea birdefinitzea, ekonomia, gizarte eta ingurumen dimentsioa txertatzeko.
- Jarduera ekonomikoan Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) txertatzea.
- Gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren jasangarritasuna integratzen eta garatzen duten antolakuntzako eta lurraldeko esku-hartze ereduak garatzea.
- Enpresek gizartearekin eta lurraldearekin duten erantzunkidetasuna sustatzea.
- Negozio eredu inklusiboak artikulatzea.

- Jasagarritasun hirukoitzak, GJHea eta gizarte balio partekatuak sortzen dituzten aukeretara egokitutako estrategiak diseinatzea.
- Lankidetzaren sareak sortzea, garatzea eta/edo horietan parte hartzea.
- Enpresa edo lurralde arloko gaitasunak eta balio-kateak identifikatu eta garatzea, baita horietan oinarritutako aukerak ere.
- Enpresa proiektuak eta/edo jarduerak bideragarri egitea lanpostuen enplegu-gune berrien esparruan.
- Balio erantsiko negozioak eta funtsezko ekonomiaren jardunbide egokiak modelizatzea.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira entitate eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatua jasotako kostuak, jardueraren garapenari zailtasunik gabe lotuta daudenean. (Ikusi diruz lagungarriak diren kostuak I. eranskina - 12. oinarria eta VII. eranskina - 5. oinarria).

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Dirulaguntzak kostu hautagarrien % 80 izango dira.

EMATEKO PROZEDURA

Laguntza emateko prozedura, lehiaketa bidezkoa izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

Dirulaguntza hauek ez dira bateragarriak helburu bererako beste dirulaguntza, sarrera edo baliabiderek, baita edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional, europar edo nazioartekotik etortzen direnekin ere.

BETETZEKO EPEAK

Eskaerak aurkezteko epea: **2021eko uztailaren 19an, goizeko 12:00etan amaituko da.**

Jarduerak hasteko epea: **dirulaguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.**

Proiektuen exekuzio data: **2022ko ekainaren 17a.**

Proiektuak justifikatzeko data: **2022ko uztailaren 17a.**

ARAUDI APLIKAGARRIA

Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programaren 2021eko oinarri arautzaileak eta deialdia: VII.ERANSKINA - Garapen jasangarria sustatzeko (GJH) eta enpresen balio sozial partekatua sortzea. (2021eko ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluaren erabakia. [GAO 114 zk. 2021eko ekainaren 18an](#)).

ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/Garapen-Jasangarria>

- Eskaera kudeatzeko aplikatiboa

<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENENKO ZERBITZUA

Kudeaketa administratiboa: 943.113981

Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus